

AUTOTXOSTENAK

Autotxostenak dira eskola-jazarpena edo ziberjazarpena jasaten duten pertsonen ematen duten informazioa aztertzeko gehien erabiltzen diren moduetako bat.

Galdetegiak, kontrol-zerrendak, narrazioak, istorio pertsonalak, marrazkiak eta abar erabiltzen ditugu pertsona inplikatuaren ikuspuntuan oinarrituta jazarpenaren edo ziberjazarpenaren alderdi esanguratsuenak ikertzeko, eta, horri esker, kasuan kasuko tratu txarren edo jazarpenaren hainbat alderdiri buruzko informazioa lor dezakegu. Modu horretan, askotariko gaiak balora ditzakegu, hala nola jazarpenen intzidentzia, jazarpen moduak, biktimizazioa eta inplikatuaren sentimendu eta emozioak, kode guztiak kontuan izanda eta prozesuak eskatzen dituen neurri guztiak hartuta.

Emandako informazioa subjektiboa bezain funtsezkoa da; izan ere, eskola-jazarpena edo ziberjazarpena jasaten duten pertsonen iritzia eta pertzepzioa kontuan izatea oso-oso garrantzitsua da zer erabaki hartu eta nola esku hartu behar den aztertzeko orduan.

Horrez gain, nabarmentzekoa da autotxostenen bitartez balio hirukoitza ematen diogula gure lanari.

1. Informazioa biltzeaz gain, honako mezu hau ematen ari gara: Zuen ongizate sozio-emozionalak arduratzen gaitu. Horregatik, zuen sentimenduak eta irudipenak jasotzen ditugu modu antolatu eta sistematiko batean.
2. Tresna honi esker, *momentuma* bermatzen dugu. Alde horretatik, tresna honek agerian uzten du gure irakaskuntza-jardueraren barruan tarte bat hartzen dugula besteez kezkatzeko.
3. Honelako dinamikekin, bizikidetza positibo bat eraikitzen ari gara, jazarpen- eta indarkeria-egoerak inola ere toleratzen ez dituen ikastetxe gisa definitzen gaituen kultura eta estilo bat sortzen.

Era berean, aintzat hartu behar da informazio horrek mugatzaile asko eta askotarikoak dituela eta horien ondorioz desitxuratu egin daitekeela. Horregatik, komeni da informazio-iturriaren araberako alderdi batzuk argitzea.

JAZARPENA JASATEN DUENAREN INFORMAZIOA	JAZARLEAREN INFORMAZIOA	JAZARPENA IKUSTEN DUENAREN INFORMAZIOA
<ul style="list-style-type: none"> • Biktimaren minaren atalasea kontuan hartu • Biktima izatearen “kontzientziarik eza”-ren aukera kontuan hartu • Lotsagatik edo beldurragatik beren egoera ukatzen duten biktimak • Sufritzen duenaren iritzia eta ikuspuntua aintzat hartu behar dira 	<ul style="list-style-type: none"> • Bere jokabide jazarlea ez onartzea • Errugabetzea • Egindakoari kausak egoztea • Egindakoa justifikatzea eta arrazionalizatzea • Biktimari balioa kentzea, artaldekeria... • Bere ekintzen garrantziaren kontzientziarik ez izatea 	<ul style="list-style-type: none"> • Taldearen presioak eta beldurrak isilarazi edo baldintzatu egin dezake • Taldeko aurreiritziak eta kultura menderatzailea: salataria vs solidarioa • Bidezkoa zer den eta zer ez den argi ez bereiztea

Jarraian, laburki azaltzen dira autotxostenen eta kontrol-zerrenden zenbait eredu.

Ni eta eskola (Lera, M^a José eta Olías, Francisca)

Galdetegi honek 26 galdera ditu, eta ikasleak bere ustez egokiena den erantzuna hautatu behar du eskolari buruz duen pertzepzioan oinarrituta. Haren erantzunen arabera, ikaslea eskolan nola moldatzen den jakin ahal izango dugu. Horretarako, hiru arlo aztertuko ditugu: ikaslearen pertzepzio akademikoa, ikaslearen harremanen kalitatea, eta eskolarekin duen gogobetetasuna.

Galdetegia tresna ona izan daiteke komunikazio-kanal seguru baten bidez ikasleen ongizate sozioemozionala aztertzeko, eta ikasturtean zehar momentu desberdinetan bana daiteke.

PRECONCIMEI (Avilés, J. M^a (2002); Ortega, Mora-Merchan eta Moraren lanetik egokitua)

Galdetegi hau Olweus doktorearen *Olweus Bully/Victim Questionnaire* galdetegian oinarrituta dago (izenburua gaztelaniako Preconcepciones de Intimidación y Maltrato Entre Iguales-en akronimoa da, hau da, Berdinen arteko larderiaren eta tratu txarren gaineko ikusmoldeak), eta *bullying* fenomenoaren labur aztertzen du hiru ikuspegitatik: ikasleak, irakasleak eta familiak.

Tresna hau guztiz bat dator Bizikasi ekimenak proposatzen duen ikuspegi ekosistemikoarekin, eta modua ematen digu *bullying* fenomenora modu antolatuan hurbiltzeko, hezkuntza-komunitate osoak parte hartuta.

Nire bizitza eskolan (Arora)

Kontrol-zerrenda hau jokabide operatibizatu eta aldagarri positibo nahiz negatiboaren autotxosten bat da, eta aztertu behar den taldea jazarpenari dagokionez zein egoeratan dagoen kontrolatzen du. Horrela, *bullying*ari buruzko adierazle bat eta erasoari buruzko beste bat lortzen dira, item jakin batzuen bitartez.

Zuzeneko behaketan atentzioa ematen diguten alderdi batzuk ikusten ditugunean erabil dezakegu.

Bizimodua eskolan (Lera, M^a José eta Olías, Francisca)

Zazpi eremutan antolaturiko tresna honi esker, jazarpen posibleari buruzko denetariko informazioa jaso dezakegu, eta ikasleak jasaten dituen tratu txarrak zenbaterainokoak diren aztertu; horrez gain, erasoak non gertatzen diren iker dezakegu, eta ikasleei zuzenean galde diezaiekegu ea duela gutxi egin edo jasan duten erasoak.

Horrez gain, gero zer gertatzen den azter dezakegu, ea horren berri ematen duten, nori, eta, azkenik, jolas-orduaz galde diezaiekegu.

Harremanak diagnostikatzen

Bost esparruren inguruan antolaturiko inkesta honen bidez, ikasleek tratu txarrekin lotutako jokabideak aztertu ahal izango dituzte, eta hartzen dituzten neurrien inguruan hausnartu. Gainera, inkestak aukera ematen digu jazarpen-egoeren gaineko pertzepzioari buruz zerbait gehiago jakiteko, eta informazioa ematen digu lekuei buruz, tartean dauden pertsoneri buruz eta beste hainbat konturi buruz. Era berean, taldeak jazarpen-egoera batean izan daitezkeen erreakzioekin zenbaterainoko konpromisoa daukan azter dezakegu.

Teknika narratiboak eta grafikoak

Narrazioen, marrazkien, tokiaren planoaren, istorioen eta abarren bidez protagonistei berei buruzko informazioa lortzea ebaluazio kualitatiboaren teknika bat da, baita jazarpenean sakontzeko ekarpen metodologiko handi bat ere. Teknika hauen bidez, hain zuzen, jazarpen-egoeretan izan ohi diren asmoak, jarrerak, emozioak eta posizionamendu moralak azter daitezke (Avilés, J.M. 2013).

Cyberbullying galdetegia (Ortega, Calmaestra, Mora-Merchán 2008)

Galdetegi honek aztergai du nerabeek nola erabiltzen dituzten telefono mugikorrek eta Internet ziberjazarpenari dagokionez.

Cybullquest (Avilés J.M. 2010)

Galdetegi honek hiru bertsio ditu: ikasleena, irakasleena eta familiena. Ikasleen galdetegian, arlo hauek ikertzen dira: sareko ohiturak, mugikorren erabilera, gertakarien prebalentzia, tipologia eta komunikazioa, gertakariei aurre egiteko modua eta bilatzen diren irtenbideak. Irakasleen galdetegian, bestalde, zer-nolako ikusmoldeak dituzten eta egoera horiek nola kudeatzen dituzten aztertzen da, eta familien galdetegian, azkenik, seme-alabek ziberespazioan egiten dutenaren gaineko ezagutzaren berri ematen da, laguntze- eta gainbegiratze-prozesuan arreta jarritz.